



Gastronomia lehia eta azoka berezia, igandean

IBARRA ▶ Hiru gunetan banatuko dute azoka: abereak, eskulanak, bertako produktuak... izango dira

PIPARRA ▶ Azokaren ardatza da; «bertakoa ezagutzera emateko beharra» ikusi dute antolatzaileek ▶ 6

LEITZA ▶

Jubilatuei zuzenduriko tailer berria martxan

Memoria lantzeko ikastaroa ▶ 7

Udazkenerako kultur egitarau «erakargarri eta aberatsa» aurkeztu dute

TOLOSA ▶ Abendua bitarte adin guztientzako ekitaldi ugari izango dira herriko kultur gune ezberdinetan: kontzertuak, antzezlanak ... ▶ 2



JESUS IÑURRITA ▶ AMEZKETAKO ALKATEA

«Karguak gure taldeak ditu baina banatuko dugu ardura, akordioekin»

«Lehentasuna Kultur Etxeak» duela dio alkate berriak ▶ 5

Jesus Iñurrita. N.URBIZU



TOLOSA ▶

Zine-forumaren lehen saioan 'En el hoyo' dokumentala, bihar ▶ 3

IZASKUN
OINETAKOAK

Inaugurazioa
ostegunean 18:00etan

Santiago kalea, 2 • Villabona

“Natura bezain eraginkorra”

PEUGEOT 308
berria

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxe: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

TOLOSA ▶ KULTURA

IÑIGO TERRADILLOS

Udan izandako etenaldiaren ostean, ekitaldiz beterik dator aurtengo udazkena. «Erakargarria eta aberatsa» dela azaldu dute Udaletik, eta orain arte bezala oreka mantendu dutela, «adin guztientzat ikuskizun ezberdinak antolatuz, eta Tolosak Gipuzkoaren barruan duen lekua berretsiz». Ekitaldi guztien sarrerak, orain arte bezala, Interneten eskuratzeko aukera izango da.

ANTZERKIA

'Lapur Zuloa'. Etzi, 20:00etan. Aitzol Udal Euskaltegiaren 25. urteurrenoko ekitaldien baitan. Kontxu Odriozola, Joseba Apaolaza eta Ainhoa Aierbe bezalako aktore ezagunek hartzen dute parte. Komedia beltza eta samurra da, garrantza eta atsegina. Obsesioak jotako lau pertsonaiaren bizitzak gurutzatuko dira antzeztan honetan **'Bota Patsa'**. Urriaren 5ean (ostirala), 20:00etan. Joseba Usabiaga eta Iker Galartza tolosarrak dira egileak eta aktoreak. Aukerak ez dira bakarrik etortzen, kasualitateak ez du lekurik. Zorteak ez du indarrak, opariak ez dira debalde, patsa da bidea, izerdia. Esfortzuaren patsa. Nolako patsa, halako gizona. Hau izango da antzeztanaren gakoa.

'El jefe de todo esto'. Azaroak 10 (larunbata), 20:00etan. Estreinaldia bezperan Santurtzin egingo dute, eta hurrengo Tolosakoa izango da. Aktore ezagun askok hartzen dute parte, Oscar Terolek eta Elena Iruretak, esaterako. Lars Von Trier zinegile ospetsuak idatzitako komedia da. Informatika enpresa baten jabeak saldu egin nahi du lantegia, baina arazoa da enpresa sortu zuenean gerezurak jabe bat asmatu zuela, *El jefe de todo esto*, hain zuzen. Izen horren atzean ezkuta zitekeen erabaki deserosoak hartu behar zituen bakoitzean. **Gormutuen antzerkia.** Azaroaren 16an eta 17an. Gainditzen gorren elkarrekin antolatuta, bigarren aldiz egingo dute Tolosan.

HAURRENTZAKO ANTZERKIA

'Txanogorritxo eta marrubi zaporeko gaitzainak'. Irailaren 22an (larunbata), 17:00etan. Txanogorritxoren ipuin klasikoaren antzerkirako moldaketa da, Glu Glu taldearen eskutik. Ilobei ipuinak kontatzen dizkieten aiton-amonei omenaldia da. Aktore lanak irudi eta musikarekin batera Txanogorritxoren ipuin klasiko antzeztan goxo eta argia bihurtzen dute. **'Karabaseko Markesa'.** Urriak 13 (larunbata), 17:00etan. Es-

«Erakargarria eta aberatsa» udazkeneko kultur egitaraua

Adin guztiei zuzenduriko antzeztanaz eta kontzertuez gozatzeko aukera izango da etzi hasi eta abendua bitarte



Benito Lertxundi, duela bi urte, Leidorren eskaini zuen kontzertuan. I. TERRADILLOS

treinaldia da. Golden Apple Quartet taldeak haurrentzat egindako euskarazko musika. Errotari zahar batek katu bat utziko dio bere seme gazte-enari herentzia bezala. Hau beste katuak baino argiagoa da, eta guztiei sinesaraziko die bere jabea Karabaseko Markesa dela, horrela gortean sartuz. **'Pizti Domatzailea'.** Urriaren 27an (larunbata), 17:00etan. Aitziber Garmendia, Idoia Sanchez eta Kepa Errasti dira antzeztaleak, eta Ana Maria Machado egilea. Antzeztanaren protagonista Eider neskatoa da. Beldurtu egiten da oheko bakkardarearen isiltasunean, gaueko itzalen artean piztiak agertzen zaizkiolako. Baina, Eiderrek aurre egingo die mamu guztiei, eta lehia horetatik garraile irtengo da.

Txirri, Mirri eta Txirribiton JR. Abenduaren 22an (larunbata), 17:00etan. Txirri Mirri eta Txirribiton pailazoak aski ezagunak dira Euskal Herrian, izan ere, 33 urte pasatxo daramatzate gaztetxoek alaituz. Orain,

pailazo ezagunen belaunaldi berria osatzen dute Mikel Otategik, Kattalin Ansorenak eta Fernando Ruizek.

KONTZERTUAK

Benito Lertxundi. Urriaren 20an (larunbata), 20:00etan. Udaberri taldearen 50. urteurrenaren harira antolatua, Udalarekin elkarlanean. 2002.eko urriaren kaleratu zuen oriotarrak bere azken diskoa, *Nere ekialdean* izenarekin. Diskorik landu eta garatuena da.

Golden Apple Quartet. Azaroaren 3an (larunbata), 20:00etan. *En Serio* kantaldia aurkeztuko dute estreinakoa Iruñean egin eta gero. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketako egitarauaren baitan sartu dute emanaldi hau.

Cesaria Evora. Azaroaren 13an (asteartea), 21:00etan. *Mundua Tolosan* zirkloaren baitan.

Carlos Nuñez & Alos Quartet. Azaroaren 23an (ostirala), 21:00etan. *Mundua Tolosan* zirkloaren baitan.

Santa Zeziliako kontzertua. Azaroaren 25ean (igandea), 12:00etan izango da musikariaren zaindariaren eguneko ohiko kontzertua.

Ken Zazpi. Abenduaren 14an (ostirala), 22:00etan. Disko berria aurkeztuko dute Durango Azokan, eta aurkezpenaren ondoren, Tolosakoa izango da areto handiko lehenengo emanaldia. Rocka eta power-popa lantzen dituen talde hau 1996. urteko udazkenean sortu zen Gernikan, J.M. Arronategik eta Eñaut Elorrietak bultzatuta.

Black Heritage Singers. Abenduaren 15ean (larunbata), 21:00etan. *Mundua Tolosan* zirkloaren baitan.

BESTEAK

Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa. Urriaren 31tik azaroaren 4ra arte, Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta.

Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia. Azaroaren 24tik abenduaren 2ra arte izango da, Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta.

TOLOSA ▶

'Ocean's Thirteen' filma ikusgai larunbatean

Ocean's Thirteen pelikula izango da ikusgai asteburuan Leidor aretoan. Larunbatean, 19:30ean eta 22:30ean emango dute, igandean 19:30ean eta astelehenean, ikuslearen egunean, 20:30ean. Bestalde, gaztetxoen zirkloko pelikula bat ere emango dute asteburu honetan, ohikoa den bezala. Hain zuzen ere, *Los Simpson* filma izango da ikusgai igandean, 17:00etan.

GIZARTEA ▶

Bizikleten txeko egingo dute gaur

Mugikortasunaren Astearen baitan, gaur, 17:00etan bizikleten txeko egingo dute Villabonan. Tolosan mugikortasun mahairen bilera 20:00etan, eta Ibarra Uzturpe Ikastolako hurrek isun sinbolikoak jarriko dizkiete gaizki aparkatutako autoei.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaro zirkulua: 672637

▶ Asunzio Klinikak 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

▶ **Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

▶ **Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

KULTURA ▶

‘En el hoyo’ dokumentala ikusgai, bihar

Sari ugari jaso ditu film mexikarrak; gizakiaz eta ingurumenaz mintzo da

ESTI EZEIZA

Atsedendia ondoan, bihar irekiko ditu berriro atek Leidor antzokiko Zine-forumak. Denboraldi berri honetan ikusi ahal izango den lehen filma mexikarra da eta *En el hoyo* izena du. J. C. Rulforen dokumentalarekin hasiko dute programazioa. Izan ere, Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatzen ari da egun hauetan eskualdean, horregatik, gai honekin lotura duen film bat aukeratu dute. Honekin, Zine-klubak, «dokumental mamitsu honetaz gozatzeko aukera eskaintzeaz gain, mugikorta-

sun iraunkorraren arazoa beste ikuspegi batetik aztertzeko gonbidapena luzatu nahi du». Zine-forumeko antolatzaileen esanetan film honen alde «apustu» egiten dute, «jendea dokumentalak aretoetan ikustera ohitua ez badago ere, honako honek merezi du». Eta gaurkoarekin batera denboraldian zehar genero honetako beste hiru film eskaintzeko asmoa dute. *En el Hoyo* dokumentalean azaltzen den autopistaren proiektuak sekulako iskanbila sortu zuen Mexikon, bereziki, garraio publikoa bultzatzearen aldeko elkarte eta herritarren artean.



‘En el hoyo’ film mexikarreko irudietako bat eta kartela. HITZA

ZINE-FORUMA ▶

Izenburua. *En el Hoyo*.
Zuzendaria. J. C. Rulfo.
Herrialdea. Mexiko.
Eguna. Bihar.
Ordua. 19:15 eta 21:45ean.
Tokia. Leidor antzokia.
Generoa. Dokumentala.
Gaia. Ingurumena eta gizakiaz hitz egiten du.

J. C. Rulfo zuzendaria Mexikoko hiriburuan bizi denez, autopistatik oso gertu gainera, arreta handiz jarraitu zuen eztabaida hau. Baina filmari ekiterakoan, nahiago izan zuen hau alde batera utzi, eta arazoa beste dimentsio batera eraman, unibertsalago batera. Helburu honekin, egunero egunero, obran ari ziren langile talde baten ohiko lanaldiak filmatzen hasi zen, beraien ingurua ahaztu gabe. Hau da, obra bera, eta bertatik ikusten den hiri handia.

Gizakia eta ingurunea dira filmaren gai nagusiak. Alde batean langile talde xehe baten egunerokoak ikus daitezke, eta bestean, kotxez betetako paisaia kaotikoa.

JOXE MARI LOPETEGI ▶ ZINE-FORUMeko LEHENDAKARIA

«Zerbitzu publikoa izatean, kalitatea galdu gabe, aniztasuna bilatzen saiatzen gara»

Zinemazale amorratuak dira Zine-forumaren baitan lan egiten duten kideak. Halaber, joan den urtean emandako aldaketaz eta hemendik aurrera dituzten erronkez mintzatu dira Joxe Mari Lopetegi (Tolosa, 1944) eta bere taldekideak. **Joan den urtean aldaketak eman ziren, hauen inguruko zein balorazio egiten duzue?** Berez, oso arriskutsua zen, dena berria baitzen. Gainera ikusle kopurua, normalean ez da berritzen, eta murrizten joaten da. Hala ere, fidelotasun handiko ikusleak izan ditugu.

Hala ere bi saio jarri zenituzten... Osteguna ez da egun oso ona, horregatik, askorentzat gaueko saioa beranduegi geratzen zela uste genuen eta beste bat lehenago ipintzea erabaki genuen. Hau onerako izan da. Hala ere, oraindik jende gehiago joaten da betikora. **Aurten, Udalak ere parte hartu du Zine-forumean...** Bai, eta hori ezinbestekoa da, diru laguntzekin bakarrik ezin du lan egin zune-klub batek. Pelikulak aukeratzeko garaian ere, ezin baitu arriskatu,

beldurrez jokatzeko da. Bestalde, zerbitzu publiko bilakatzeko, zentzu hori errespetatuz, kalitatea galdu gabe, baina publiko aniztasuna bilatzen saiatu gara. **Zein da aurtengo berrikuntza nagusia?** Koloretako esku-programa bat prestatzen ari gara. Hemen, zortzi edo bederatzita filmeren informazioa emango da. Hau, azaro aldera aterako dugu eta tabernetan banatuko dugu, jendeak jakin dezan zer ikusi daitekeen ostegunetako saio horietan.

Nola egiten duzue filmen aukeraketa? Zine-forumaren irizpideak adostuta daude. Hala, antolatuzaileetako batek film bat ikusten duenean, besteei komentatzen die. Hala, programazioaren aniztasunaren bilaketa horretan balio ote duen ikusten dugu eta filma lortzen saiatzen gara. **Zein film dute gustokoen Zine-forumeko jarraitzaileek?** Ohiko jarraitzaileen gustokoenak, Europako film onak dira. Amerikarra ez den zinearen

bila joaten dira. Hala, badakigu horrelako film bat jartzen badugu arrakasta izango duela. **Denboraldi honetan nolako pelikula eskainiko dituzue?** Oraindik gehienak zehazteke daude. Hala ere, Ereite elkartearekin adostuta, Etorikaren Nazioarteko Egunean, gai honen inguruko dokumental bat eskainiko dugu. **Hori da beste aldaketetako bat, elkarrekin ere lan egingo duzue.** Bai, gaurko filma adibidez ingurugiro eskolarekin hitzartu dugu. Honez gain, sei pelikula gutxienek, Tolosaldeko eragileren batekin hitzartutakoak izango dira. Guk lehendabiziko aukeraketa egingo dugu, eta beraiek azken hitza izango dute. ◀

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

hilberria ▶

Julian Telleria Goiburu

Herenegun hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

– Golan bego –

Bere arima zuzendaria: Jose Luis Agirretxe; emaztea: Anttoni Aldanondo; seme-alabak: M^a Jose eta Juan Jose Arrieta (†), Julien eta Maite Lasa; bilobak: Ane, Leire, Andoni, Joanes, Maddi; anai-arrebak: Joxe (†), Antonio eta Mari, Xanti eta M^a Jesus; ezkon anai-arrebak: Luisa (†) eta Satur, Silvestre eta Anttoni, Joakin eta Juli, Cayetano (†); ilobak, lehengusua eta gainerako ahaidiek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Lardizabal, 2.
oharra ▶ gorpua Beasaingo Goierrri Beilatokian egongo da.

SEGURA, 2007ko irailaren 19a

ANOETA ▶ POLITIKA



Erniora iguera «aldarrikapenak zabalduz»

Erredakzioa ▶ Pasa den igandean 20 bat lagun bildu ziren Erniora igotzeko. Anoetatik abiatu ziren oinez, «urtero egin ohi dugun bezala». Isastik barrena Hernialdera igo eta Fraileburutik barrena iritsi ziren Erniora. Ondoren Zelatunen bazkaldu eta gero Alkizatik barrena jaitsi ziren

Anoetara. Aurreko urtean «aldarrikatzen genuen udal demokratikoa lortu dugun arren», aurten ere ez dituzte aldarrikapenak alde batera utzi. Besteak beste, «euskal presoek Euskal Herriratzearen aldeko eta AHTren aurkako aldarrikapenak zabaldu ditugu Ernio puntatik». HITZA

ANOETA ▶ AZPIEGITURAK



Helikoptero gidariaren trebezia ikuskatzea egiteko

Erredakzioa ▶ Orain gutxi Anoeta zeharkatzen duen argindarraren kablea ikuskatzen aritu zen helikoptero bat. Ikusi zutenek diotenaren arabera «trebetasun ikaragarria zuen gidariak, apartua denbora luzez poste ondoan geldirik mantenduz». JOXI LASA

VILLABONA ▶ POLITIKA

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Naziotasun Eguna ospatuko dute datorren larunbatean Villabonan. Eguna osoko egitarau baten baitan ekitaldi politikoa burutuko dute eguerdian. Ekitaldian Bai Euskal Herriari herri ekimenak hitza hartzeaz gain, Udalbiltzako ordezkari batek ere parte hartuko du. Ekitaldiak 10:00etan hasiko dira eta EHNA egiteko aukera izateaz gain, erreboteko txapelketa, kalejira eta aipatutako ekitaldi politikoa egingo dituzte bazkariaren aurretik. Bazkaltiarrek txekor erre dastatu ahal izango dute. Trikipoteoaren amaituko dute eguna.

Bai Euskal Herriari herri ekimena osatzen dutenek diotenaren arabera, «kazken hilabetetan Euskal Herriaren nazio identitatea behin eta berriro

Eskualdeko Naziotasun Eguna ospatuko dute larunbatean

Ekitaldi politikoaz gain, egun osorako egitaraua prestatu dute antolatzaileek

erasotua izaten ari den honetan, inoiz baino garrantzitsua goa deritzogu erantzutea».

Erantzuna «erasoa erortzen den zentzuan» izango dela adierazten dute: «Gure nazio izatea eta eskubideak aldarrikatu eta zabalduko ditugu eta euskal naziotasunaren baitan indarrak bilduaz erantzungo diegu erasoiei». Horrela, dei egiten diete euskal herritarrei larunbatean ospatuko den Naziotasun Egunean parte har dezaten.

EGITARAUA ▶

10:00. Egunaren hasiera zazpi suziriaren jaurtiketarekin.

10:00-13:00. Villabonako udaletxean EHNAren tramitazioa burutuko dute Udalbiltzako hautetsiek. Hiru argazki, 15 euro eta errolda agiria aurkeztu behar dira.

11:00. Errebote txapelketa izango da plazan. Aditu eta abilenen arteko txapelketa burutuko da. Tartean lpar

Euskal Herriko irabazleak lehiatuko dira.

11:00. Dultzainero eta txistularien kalejira.

13:00. Ekitaldi politikoa herriko plazan. Bai Euskal Herriari ekimeneko ordezkari batek eta Udalbiltzako ordezkari batek hartuko dute hitza. Herriko dantza taldeak dantza ikuskizun bereziak emango ditu.

14:30. Herri bazkaria herriko plazan. Ostiral gauean hasita, txekor oso bat erreko da. 300 lagunentzako herri bazkaria prestatu da. Bazkariko txartelak Villabonako tabernetan izango dira salgai. Txartel hauek Tolosaldeko herrietara ere zabalduko dira. **18:30.** Triki bertso poteoa. Herriko tabernetan ikuskizun bereziak izango dira.

hitza

Harpidedunen
txokoa

AITZOL udal euskaltegiaren 25. urteurrenaren baitan...

ostiralean Tolosako Leidor aretoan **LAPURZULO** antzezlan ikustera joateko **3 sarrera pare** zozketatuko ditugu!

Horrez gain, **iganderako** AITZOL euskaltegiak Tolosako Zerkausion antolatutako **bazkarirako 3 sarrera pare** irabazteko aukera ere izango duzue!

Gainera, Donostiako **ZINEMALDIRA** doan joateko aukera ere baduzue, izan ere **HITZAK 27 sarrera pare** ditu **zuen artean banatzeko**.

Parte hartzeko, deitu 09:00etatik 13:00etara telefono zenbaki honetara: **943 65 56 95**



IBARRA ▶ AZOKA

Gastronomia lehia eta azoka berezia igande guztian zehar

Abereak, eskulanak, bertako produktuak eta batez ere piparra izango da azokaren ardatza igande honetan

ASIER IMAZ

Ibarra, azoka eta piparra izen-buruarekin dator, aruten, Hauspoa Kultur Elkarteak antolatzen duen Ibarra azoka. Udala, Zubelzu Piparrak, Txumitxa eta Piparraren Kooperatibaren laguntza eta babesarekin, hilaren 23an izango da eta egun osoa hartuko du.

Igandeko azoka, herrian zehar kokatuko diren hiru gune-

tan banatuta egongo da. Lehenengo gunea Emeterio Arrese Parkean egongo da. Hemen izango da, Xepla Elkartearen eskutik, Euskal Herriko Piparraren III. Lehiaketa Gastronomikoa. Duela bi urte nazio izaera hartu zuen eta antolatzaileek 7 lehiakide gonbidatuko dituzte, lurralde bakoitzeko bat. Horietaz gain, inguruetatik ere lehiakideak etorriko dira. Horrela, partaide bakoitzak,

«derrigorrez» bi lan burutu beharko ditu: alde batetik *piperrada* Ibarra azokaren piparrarekin eta bestalde sei pintxo berdin egin beharko ditu, beti ere piparra osagai nagusia delarik.

Lehiaketaz gain, inguruan postuak egongo dira lehen gune honetan. Abereak ere euren txokoa izango dutelarik.

Bigarren gunea San Bartolome plazan egongo da kokaturik. Egun osoan zehar, artisau

lanak egongo dira ikusgai eta erosgai. Besteak beste, lore lehorrak, zeramika, kristala, kamisetak, egurra eta Kultur Etxeko tailerretan landutako eskulanak. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, «ez da produktu erakusketa hutsa izango», alegia, artisauak beren lana nola egiten duten ere azalduko dute.

Lehen bi guneak, 10:00etatik 14:00etara iraungo dute. Hortik aurrera, hirugarren gunea edo plazan burutuko dira ekitaldiak. Antolatzaile eta laguntzaileek bazkaria egingo dute bertan. Horretaz gain, antolatzaileek jakinarazi dutenez, egun guztian zehar herriko trikitilari eta dultzaineroak ibiliko dira kaleetan barrena giroa alaitzen. «Aukera polita, beraz, egun pasa eder bat egiteko eta hemengo produktuekin begiak eta barrenak gozatzeko».

Festa giroak iluntzera arte iraungo duela jakinarazi dute antolatzaileek.

AMEZKETA ▶

Etxebizitza politikari buruzko hitzaldia gaur

Gaur, 20:30ean Amezketa balioanitzeko gelan, herriko EAE-ANVk deituriko hitzaldia izango da. Bertan, etxebizitza politikari buruzko informazioa emango dute, besteak beste. Hitzaldia irekia da eta herriarentzat interesgarria den informazioa emango dute. Horren ondorioz, amezketarre bertara azaltzeko deialdia luzatu dute Amezketa EAEtik.

AMEZKETA ▶

Ugarteko jaiei buruzko bilera gaur iluntzean

Amezketa Ugarteko festak antolatzeko eta prestatzeko gaur bilera izango da elkarrean bertan. Jai batzordea hirugarrenez bilduko da gaur, eta 21:00etan hasiko dira. Bilerak irekiak dira eta urriko jaietako egitarau aberats bat osatzea espero dute, asteazkeneko egongo dituzten bilerei esker.

TOLOSA ▶

Gaur 20:00etan Beotibarko Guda gogoratuko dute

Beotibarko Guda gogorazteko ekimenen barnean, gaur 20:00etan Tolosako Triangulon ekitaldi politikoa egingo da EAE-ANV antolatu. Bertan, hitzaldien barnean, ikurrina eta Nafarroako ikurrak jarriko dituzte. Agurra dantatu ondoren, bigarren hitzaldi politikarekin ekitaldiaren zentzu politikoa- ren gaurkotatua azalduko dute. Ezker abertzaletik herriar orori parte hartzeko deia luzatu dute.

JAIONE BENGOTXEA ETA EDURNE URDANPILLETA ▶ XEPLA ETA HAUSPOA ELKARTEKO KIDEAK

«Bertakoa ezagutzera emateko aukera eta beharra ikusi genuen»

Igande honetan, egun guztian zehar Ibarra azoka eta piparraren lehiaketa burutuko dira. Edurne Urdanpilletak (Ibarra, 1977) eta Jaione Bengoetxeak (Ibarra, 1969) buru belarri dihartute antolatzaile lanetan.

Zergatik hasi zineten Ibarra azoka antolatzen?

Edurne Urdanpilleta: Herrian bertan garaietan garaiak eta bertakoa ezagutzera emateko aukera eta beharra ikusi genuen. Nekazaritza bultzada handi bat emateko batez ere. Herriko baserriar asko biltzen ditugu horrela. Hasieratik azoka eta barazkiak ekar-

tzen hasi ziren. Hala ere esan beharra dago barazkiekin azken urteetan zailtasunak izan ditugula. Horretaz gain, herriarrek eginiko artisau lanak erakusteko aukera eskaintzen du igandeko azokak.

Pipar lehiaketak nazio izaera dauka. Baina zer esan nahi du honek?

Jaione Bengoetxea: Lehiaketa hau Euskal Herriko 7 lurraldetara zabaldu nahi dugu. Horregatik 7 lehiakide gonbidatzen ditugu, lurralde bakoitzetik bat, hain zuzen ere.

Ganadua nahiz jaki eta edarien kokalekuak aldatu ditu-




A. IMAZ

zue aurtengo azokan. Zergatik?

E.U.: Iaz azoka oso sakabanatuta geratu zen, batez ere, ganaduaren gunea. Gure ideia guztia uztartzea izan da, bide gorriaren bidez lotuaz plaza eta Emeterio Arrese parkea. Espero dugu denon onurarako izatea hartu dugun erabakia. **Nondik etorriko zaizkizue parte-hartzaileak Euskal Ho-**

rriko III. Piparraren Lehiaketara?

J.B.: Adibidez Ezpeletatik (Lapurdi) Axoa Klub Elkarte etorriko da. Ondarrutik (Bizkaia) Kantabriko Elkarteok etorriko dira. Eskualdeko ordezkari ugari ere elkartuko dira, besteak beste, Tolosa eta Ibarra lehiakideak. Donostialdeko ordezkariak ere bertan izango dira, iazko txapeldunak barne. ◀



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

<p>Anoeta. Harrizko baserrian 90m2ko etxebizitza salgai. Berritzea.</p> <p>Betelu. Hiru logelako etxebizitza. Egongela, sukualdea, bi bainugela, terraza eta altzariz hornitua. Egoera ezin hobean.</p> <p>Donostia. Mandasko duke kalean atiko polita salgai. Logela bakarrekoa eta eraberritua.</p> <p>Ibarra. Etxebizitza, 3 logela, sukualdea eta berogailua. Berokuntza eta igogailuarekin.</p> <p>Irura. Etxebizitza atikoan. Hiru logelakoa.</p>	<p>Kanpoaldera, oso eguzkitsua, 237.500 euro.</p> <p>Ibarra. Bi logelako etxebizitza. Eraberritua. 258.435 euro.</p> <p>Tolosa. San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta guztiz berritua.</p> <p>Tolosa. Belate auzoan 25 m2ko garaje itxiak, eraikitzen hasita.</p> <p>Tolosa. Gernikako Arbolan, merkataritza-erako lokala bi solairurekin, bakoitzak 35 m2.</p> <p>Tolosa. Aldaba auzoan, 3 solairuko etxe</p>	<p>abikia, garaje eta lursailarekin. 297.000 euro.</p> <p>Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. 70 m2.</p> <p>Tolosa. Errementari kalean, 3. solairuan, hiru gela. Eraberritua.</p> <p>Tolosa. Berazubini, eraberrituriko etxebizitza, kanpoaldera, ikuspegi ederak.</p> <p>Tolosa. Bialaren ondoan eraberriturako etxebizitza salgai. Garaje zabalarekin.</p> <p>Tolosaldea. Baserria 10.000 m2ko lursailarekin, egoera onean.</p>
--	---	---

Tolosa. Zumalakarregi kalean. 1. solairuan eta 4. an, kanpora ematen duten bista honekin.

Tolosa. Laramendin, pisu altua, igogailuarekin, egoera bikainean, garajea eta trastelekuarekin.



LEITZA ▶ GIZARTEA

Jubilatuentzat tailer berria martxan

Memoria lantzeko ikastaroa atzo hasi zen eta urriaren 25ean amaituko da

NAIARA GARZIA

Atzo hasi zen Leitzako Jubilatuen Elkarteak eta gizarte zerbitzuak antolatutako adineko pertsonentzako memoria tailerra. Orotara 12 saio egingen dituzte eta orokorrean aste hauetan zehar jorritako dituzten gaiak memoriaren ingurukoak izanen dira: memoriak nola lan egiten duen aztertzeaz gain, memoria entrenatzeko ariketak egingen dituzte, baita eguneroko bizitzan memoriarekin izan daitezkeen akats txikiei aurre egiteko teknikak ere. Tailerra asteartero eta ostegunero emanen dute 18:00etatik 19:30era, eta urriaren 25ean amaituko da. Irailaren 18, 20, 25, 27 eta urriaren 2, 4, 9, 11, 16, 18, 23 eta 25ean emanen dituzte tailerrak.

Antolatzaileen arabera, memoria lantzeko tailerraren helburu nagusia memoriak lanean jarraitzen ikastea da, hau da, memoria aktibo bat izatea. Helburu hau lortzeko hainbat ariketen bitartez arreta, logika, hizkuntza eta memoriarentzat ezin bestekoak diren beste zenbait alderdi suspertuko dituzte. Tailerrak San Francisco Javier psikogeriatriko zentroko

Txus Ojerek emanen ditu, eta azalpen teorikoez gain, taldeko ariketak eta bakarkakoak egingen dituzte. Astean bi egunetan biltzeaz gain, etxean egiteko ariketak ere bidaliko dituzte.

Ikastaroaren edukia

Memoriak lan egitea ikastaro honen helburu nagusia izanik, arreta, kontzentrazioa, pertzepzioa eta hizkuntza lantzeko biltzarre, asoziazio, antolaketa eta errepikatze ariketak egingen dituzte 12 saio hauetan.

Azalpen teorikoei dagokiernez memoria eta honen fase ezberdinak aztertuko dituzte. Honetaz gain, memoria eta adineko pertsonen arteko erlazioa ere aztergai izanen dute, baita antsietatea eta depresioak memoriari nola eragin dezaketean ere.

Azkeneko urratsa ikasitako guztia eguneroko bizitzan erabiltzea izanen da: izenak gogoratzea, testuak irakurri eta ulertzea, hitzak aurkitzeko zailtasunak lantzea, erosketak egiteko zerrenda gogoratzea...

Jubilatuaren egoitzan bilduko dira astero, 20 pertsonen parte hartuko dute eta gehienak emakumezkoak dira.

MENDIALDEKO AGENDA 21 ▶



Inkestak amaitu dituzte Leitzan eta Areson

N. Garzia ▶ Udan martxan jarri zuten Mendialdeko Agenda 21 proiektuaren lehenengo zatia jada amaitu dute Leitzan eta Areson. Aste hauetan inkestak egin dizkiete hainbat herritarrei. Ana Betelu Areson, Leitzan eta beste zenbait herritan inkestak egiten ibili da. «Hasieran kalean ibili naiz, baina gero etxetara ere jo dut, adin

zehatz bateko norbait behar nuenean». Mendialdeko Agenda 21 zonaldeko 8 udalerrien (Araitz, Arano, Areso, Betelu, Goizueta, Larraun, Lekunberri eta Leitzan) proiektu bateratua da. Proiektuak datozen 5-10 urteetan herritarrek nolako garapena nahi duten zehaztea du helburu. 8 udalerrietan 320 inkesta egingen dituzte. n.g.

LEITZA ▶

Nieve Altsasuko lasterketan lehenengo

Mikel Nieve larunbateko Altsasuko proban lehenengo gelditu zen. Leitzarrak azaldu duenez, «asteburuan bi lasterketa zeudenez, bat Lezon eta bestea Altsasun, txirriindulariak banatu egin ginen». Orotara 40 txirriindularik hartu zuten parte Altsasuko festetan egindako lasterketan. Nievek bihar bukatuko du denboraldia, Uharthe-Iruñeako lasterketarekin.

ARESO ▶

Ehizerako postuen enkantea

Asteburu honetan eta hurrengoan Areson, urtero bezala, birgarro eta usotarako postuen enkantea egingen dute. Bi saio ezberdin egingen dituzte, udaletxean, lehenengoa larunbat honetan izanen da, 19:00etan, eta bigarrena datorrenean. 27 postu aterako dituzte enkantera, eta eskaintzak 100 eurotik gora hasiko dira. Hegazti hauek ehizatzeko denboraldia urrian hasiko da.

LEITZA ▶

Antenako apustuan Iraitz Uriarte irabazle

Joan den larunbatean Iraitz Uriarte eta Mikel Anduezarren arteko apustua lehenengoak irabazi zuen. Uriartek korrika 22 minutu eta erdi behar izan zituen eta Anduezari utzi behar zizkion 7 minutuez gain, azkenean 3 minutu eta 20 segundo ateratu zizkion Anduezari. Jendea hurbildu zen apustua ikustera, gehienbat geltokira, eta gero Antenara. Gauean koardilakoez afaria egin zuten.

LEITZA ▶

Bihar, 19:00etan bilera eliz-ganbaran

Ostegunean 19:00etan bilera egingen dute herriko eliz-ganbaran udaletxeko Jesusen Bihotza udaletxean bertan mantendu nahi dutenek. Bertan Elizondoko apaiza izan arren Leitzakoa den Javier Azpiroz apaiza izanen da eta bilerara joateko deialdia herritar guztientzat ireki dute.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Argazki Lehiaketa. HITZA Argazki Lehiaketako argazkiak ikusteko gure webguneko *Iruditan* atalean sar zaituzte. Zure argazkiak ere bidali ditzakezu.

LEITZA ▶

Jon Jaunarenak 2 txapela lortu ditu asteburuan

Jon Jaunarenak bi txapela eskuratu ditu asteburuan, eta hauekin, pilotariak adierazi duenez, dagoeneko 28 txapela ditu. Amezketan Joxean Tolosa Pilota Txapelketan Jauregiri gailendu zitzaion, 18-7ko emaitzarekin. Alde dezente izan arren, sufritu egin behar izan zuela adierazi du leitzarrak. Altsasun, aldi, Santo Kristo txapelketan 18-3 emaitzarekin amaitu zuen Ansotegiren aurka.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko emakumea behar da. Goizeko 08:00etatik 15:00etara. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 628 22 65 30.



20 pertsonen parte hartuko dute ikastaroan. N. GARZIA

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leitza. Arkupeak-ek irteera antolatu du Benidormera, hilaren 22tik urriaren 6ra. Izen-ematea, elkarteak.

Tolosa. Beotibarko batailaren (1321-09-19) urteurrena profitatuz Nafarroako arma bidezko konkista eta Euskal Herriaren eraikuntza nazionalari buruzko ekitaldi politikoa antolatu du Tolosako EAE-ANVK Triangulo plazan 20:00etatik aurrera.

Tolosa. Landibarreko zirkora irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkarteak bertan.

Tolosa. Euskara ikastaroak etorkinentzat hilaren 15etik aurrera hasiko dira, Ereite elkarteak antolatuta. Kultur Etxean izango dira larunbatero, 10:00etan.

Tolosa. Aitzol udal euskaltegiaren 25. urtemugako bazkaria izango da igandean Zerkausian, bertan ibilitako guztientzat. Izen-ematea, 943 651006.

Tolosa. Hilaren 17tik 28ra izango da kultur tailerretako matrikulazio epea.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Gotzon Etxeberriaren *Olibondoak badu bihotzik* eta Josep M. Codinaren *Orografia personal* pintura eta eskultura erakusketak Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Juan Larreta Jauregi
 (Amezketak). Gaur 81 urte. Muxu asko familiaren partetik.

Azken txanpan

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Ostiralera arte argitaratuko ditu HITZAK lehiaketara heldu diren argazkiak; gainontzekoak webgunean daude ikusgai



VIETNAM ▶

Arantxa Muñoa.

«Sa Pa-n (Viet Nam), beste hainbat lekutan bezela, ez dituzte haurtzaindegia eta amak umeak egun osoan gainean eramaten dituzte, baino ez dirudi arazo handia denik...»



BAIONA (GALIZIA) ▶

Edurne Ezeiza (Albiztur).

«Galizian izan naiz oporretan. Argazki hau Baiona herrian atera nuen. Emakumea itsaso ondoko harroketan joaten zen hegaztiei jaten ematera. Hauek bere ondora hurbiltzen zirelarik, batzuetan gainean ere jarriz».

PERITO MORENO GLAZIARRA (ARGENTINA) ▶

Ainara Zubeldia Aizpuru (Ibarra).

Argentinako leku eder guztietatik bat aukeratu behar eta hemen Perito Moreno glaziarraren argazkia bidaltzen dizuet.



NIKARAGUA ▶

Saioa Iraola (Leitza).

«Nikaraguan izan gara. Bertakoekin egin dugu gure egonaldia. Argazki mordoia, momentu polit asko gogora ekartzen dizkidaten argazkietatik hauxe aukeratu dut. Agne mutikotxoaren irribarra, bertako umeen irudi delako, poztasun eta alaitasunaren irudi».



VIETNAM ▶

Ura Iturralde.

«Vietnamen izan gara, osoa zeharkatu dugu Ho Chi min-etik Hanoi-era benetan herrialde zoragarria da, paisaia hunkigarria eta bertako jendea oso jator eta eskuzabala. Sapako mendi eta arrozalen artean aurkitu genuen ume hau bezalakoak. Bere aterki koloretuarekin lokatz tartean bufalo gainean eserita etxeruntz zijoala».

